

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI DANBORRADA

Ekainaren 4ean, entsaioekin

San Joan festetako haurren danborradan parte hartu nahi dutenentzako, entsaioak datoren ekainaren 4ean arratsaldeko 19:00etan hasiko dira, Santa Barbara elkartearen. Entsaio egunak astearte, asteazken eta ostegunetan izango dira. Elkartearen bertan daude jantziak. Gutxieneko adina 5 urte dira. ■

■ HERNANI KONPARTSA

Bilera orokorra gaur, Biterin

San Joan Konpartsa bilera orokorra deitu du, 19:00etan, gaur, Biterin. Gai bakarra: San Joanak, ekainak 27. Bilerara deitu dituzte desfileen parte hartzen dutenak, dantzan ateratzen direnak, eta parte hartu nahi duten herritar guztiak. ■

■ HERNANI KIROLA

Kirol inklusiboak gaur, Tilosetan

Errugbi taldea jardunaldi barneratzaileak antolatzen ari da eta gaur, Tilosetan kirol inklusiboaren sentsibilizazio saioa izango da. 18:00etan hasita, Gipuzkoan kirol barneratzailean dabilen zenbait kirol talde etorriko dira eta postu ezberdinak jarriko dituzte, herritarrek elkarren artean jolasteko aukera izan dezaten. ■

■ HERNANI ITUROLA

Iturfest, lehenengo urteurrena ospatuz

Iturola Elkarlan Sorgunearen lehenengo urteurrena Iturfestarekin ospatuko dute, ostiralean Iturolan bertan. Egitarau zabala prestatu dute egun osorako. 10:00etan hasiko da ekitaldi nagusia, eguerdian bazkaria, eta arratsaldean jolasak, dantza eta musika. ■



■ HERNANI INGUMENA

Hernaniko airean sufre dioxido «maila oso altua» atzeman dela ohartarazi dute

Asteleheneko 06:00etatik 13:00era Eguzkiren neurgailuek 257 eta 265 markatu zuten, bat eta sei bitarteko eskalan bost eta 1.339 mikrogramo/m³ Jaurlaritzaren webgunean: «Biak oso kezagarriak».

ASTELEHEN goizean, aire kutsaduraren berri ematen duten hainbat webgune errebisatzen ari zirela, Eguzki elkarteak izugarri sufre dioxido maila altua atzeman zuten Hernanin, 06:00etatik 13:00era.

«Neurgailuek 257 eta 265 ere markatu zuten» diote Eguzkitik. «Zerbaki horiek bosteko bat dira bat eta sei bitarteko eskala batean. Hori oso kaltegarria da eta osasun alerta jotze-

ko eskatzen du».

«Isuri haundi eta arriskutsua»

Eusko Jaurlaritzaren webgune batean, berriaz, 1.339 mikrogramo/m³ erregistratu dira. «Zerbaki hori ere oso kezagarria da. Beraz, Hernani partean SO₂ko isuri garrantzitsu eta arriskutsua gertatu zela ondorioztatzen dugu».

Eguzkiren esanetan «zori-

txarrez, Hernani ondoko poligoan kokatutako bolborategi kimikoak horrelako egoerak sor ditzake».

«Non, zergatik eta ondorioei buruzko azalpenak eman behar ditu Jaurlaritzak»

Talde ekologistak azalpenak eskatzen dizkio Jaurlaritzari. Gauzak horrela, «isuriaren iturriari, arrazoiei eta ondorioei buruzko azalpen argia eta

zehatza eskatzen diogu Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailari».

Hain justu, horrelako isuriak sarri gertatzen direla kezkatuta, Hernaniko hainbat herritarrek Aire Garbia plataforma eratu zuten orain dela hilabete bat. «Asteleheneko isuria dela eta, Jaurlaritzak Hernaniko herritarrei azalpen argia eta azkarra eman behar die» dio Eguzkik. ■

■ HERNANI OSIÑAGAKO JAIAK

Elorrabiko zubi berriaren inaugurazioa jaietan

Inaugurazio ofiziala eta auzoko jaien hasiera uztartuko dira larunbatean Elorrabin. Monolitoan lore eskaintza, zinta mozketa, txalaparta, bertsoen irakurketa, aureskua eta arrauna... egingo dira.

FESTAK ate joka dira Hernanin eta aurten lehendabizikoak antolatzen Osinagakoak izango dira. Asteburu honetan ospatuko dira eta gainera ekitaldi berezi batekin datoz. Udalarekin batera Elorrabiko zubia inauguratuko da, larunbatean, 11:00etan ekitaldi desberdinekin hasita.

Udalak auzotarrei eman nahi izan die protagonismoa eta horrela monolitoan lore eskaintza egingo da hasieran. Ondoren Zuaznabatarren eskutik txalaparta saioa eskainiko da, Iñigo Legorbururen bertsoen irakurketekin tartekatuta. 11:30etan Hernaniko arraun taldearen eskutik, Uru-mea ibaian arraun saioa egingo da eta 12:00etan ekingo zaio inaugurazioari.



Izetarrak aurten ere ariko dira harrijasotzen larunbatean.

12:00etan zinta mozketa eta jaien hasiera

Horrekin batera jaien hasiera

ekitaldia antolatu da. Etxereroa, aureskua, bertsolariak, hitzak, zintaren mozketa, eta

ondoren auzoko musikoen eskutik kalejira antolatu da zubitik beste aldera, arraun taldeko instalazioari buelta eman eta berriro Elorrabira itzuliz. Ondorenerako erromeria labur bat antolatu da.

Bi egun festaz blai

Elorrabin festen hasiera eta inaugurazioa egin eta gero ekitaldiak Arriatsura pasako dira ohiko legez. Ekitaldiz betetako bi festa egun izango dira.

Larunbatean: bazkaria, herri kirol jaialdia, dantzaldia, sagardo eta bakailu dastaketa, afaria... egingo dira. Igandean: pilota partiduak, trikitilariak, bertsolariak, bazkaria, desafio berezia eta dantzaldiarekin amaituko dira jaiak. ■

OINDI

taberna
NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509

HATOR
AHOLKULARITZA
Fiskala, laborela
eta Kontabilitatea.
Gure zerbitzuak euskaraz
jasotzeko aukera duzu...
MAPFRE ASEGUURAK
Andre kalea 60, Hernani
Tel: 943 55 43 12
hator@euskainet.net

ZINKOENEA
KIOSKOA
943 334 377
688 694 034
ZinkoeneaKioskoa@gmail.com
Zinkoenea z/g Hernani Gipuzkoa 20120

MARI FE
ARRANDEGIA
NAGUSIA 36 **943 550 489**



GAUR Joera aldatu eta hobera egingo du. Goizean giro ilunarekin jarraituko dugu eta ipar partean oraindik euri apur bat egin dezake. Arratsaldean atertu eta argitzeko joera hartuko du. **Min.10° / Max.17°**



BIHAR Goizean goiz laino batzuk ikusiko dira, baina eguzkia indarra hartzen joango da, lainoak xurgatuko eta zerua oskarbi geratuko da. **Min.10° / Max.21°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

HERNANI UDALA

Kiroldegiko sistema termikoa, berriztagarria izateko urratsa

Sistema erabat berriztagarria izateko, inbertsio bat egingo da eraikinaren teilatuan dauden eguzki panel termikoen funtzionamendua optimizatzeko.

KIROLDEGIAN kontsumo osoa berriztagarria izateko inbertsioa egingo du Udalak. Kiroldegiauren teilatuan eguzki plakak daude, baina egun ez da optimizatzen horien erabilera. Azterketa egin duten adituen ustez, plaken produkzioa hobetu daiteke inbertsio txiki bat eginda. Horrela, interbentzio hori egingo da eta, horri esker, gasaren erabilera gutxienetara jaitziko litzateke. Kiroldegiko sistema termiko osoak oro har energia berriztagarrien bidez funtzionatuko luke horrela.

Biomasa kaldera martxan jarri zenetik, ekoizpen horrek asebetetzen du kontsumo termikoaren %90 Kiroldegian obra egin zenean, igerilekuak haunditzearekin

batera, instalazio termikoa ere aldatu zen. Hortaz, biomasa (berriztagarria) kaldera batek osatu zuen gasa (erregai fosila) erabiltzen zuen sistema zaharra. 2014tik hona kontsumoak izan duen eboluzioa aztertu da eta bi ondorio nagusi atera dira: egun biomasak kontsumo termikoaren %90 kubritzen duela eta energiaren kontsumoa ere murriztu dela.

2015eko eta 2018ko datuak alderatuta, %25 murriztu da energiaren kontsumoa. Hobekuntzak egin ziren, gainera, energia termikoaren eskari eta ekoizpenen kudeaketan, eta igerilekuetako uraren beroa errekuiperatzen da. Hartara, 2014 eta 2018 urte arteko kontsumoak alderatu-

ta, ondorioztatu da energiaren kontsumoa murriztu dela. 2015ean, esaterako, ia 1.200 MWh kontsumitu ziren (gasa zen erregai nagusia) eta 2018an, ostera, 900 MWh inguru (horietatik 800 bat biomasa-rekin sortuak). Aintzat hartu behar da igerilekuak haunditu direla eta, hortaz, berotzeko ur gehiago dagoela.

Sistema horren bitartez igerilekuetako eta dutxetako ura berotzen da Kontsumoa jaisteaz gain, kiroldegiko ura berotzeko, gehinbat energia berriztagarria erabiltzen da orain (%95). Gasaren kontsumoa %5era jaitz da. Fakturan ere aurreztu da, biomasa gasa baino merkeagoa baita. ||

ASTIGARRAGA HERRI ESKOLA

'Gu ere bertsoan', gaur kiroldegian

17:00etan hasita Herri Eskolako 5garren eta 6garren mailakoak ariko dira.

IKASTURTE bukaerako ekintza bezala, bertso jaialdia izango dute Herri Eskolako ikasle haundienek gaur, asteazkenean. Arratsaldeko 17:00etatik aurrera, bertsoan arituko dira Astigarragako Herri Eskolako 5garren eta 6garren mailako ikasleak, kiroldegiko pista nagusian. Ekintza hau Udalak sustatutako *Gu ere*

bertsotan ekimenaren barruan egingo da. Banaka edo taldeka pasako dira mikrofonoaren aurretik, beraien bertso onenak botatzera. *Gu ere bertsoan* ekimena, Astigarragako Udalak sustatzen du; eta Unai Muñoz bertsolariak gidatuko du saioa. Herritar guztiak daude

gonbidatuta, saioaz gozatzera. **Seigarren mailako gurasoek ere bilera gaztelekuan** Gaztelekuan ate irekiak egin ziren atzo seigarren mailakoentzat eta gaur gurasoekin bilera egingo da 18:00etan euskeraz eta 19:00etan gaztelaniaz. ||

HERNANI URUMEA IKASTOLA



Goseari aurre egiteko hamalketakoa eramán zuten haurrek.

Jaialdi koloretsua egin du Urumeak Nahiz eta eguraldia lagun ez izan, Urumea ikastolak urteroko ikasturte amaierako jaialdia antolatu zuen igandean. Goizeko 11:00etan hasi zen festa arratsaldera arte luzatu zen irakasle, ikasle eta gurasoen gozamenerako. Ikasleen emanaldiarekin hasi zen XX. mendeko musika eta dantzak gaiaren bueltan. Bazkaria, lanen erakusketa, jokoak eta DJ-a ere egon ziren. ||

HERNANI UNIBERTSITATEA

Orona Ideon ate irekiak larunbatean

Ikasturte honetako laugarrena izango da eta batxilergoko 1go mailakoei dago zuzenduta.

MONDRAGON Unibertsitateak ikasturte honetako laugarren jardunaldi irekiak antolatu ditu, larunbatean, Orona Ideo gunean daukan kanpusean, goizeko 10:30etan hasita. Kanpuseko hezkuntza eskaintza ezagutzeko aukera izango dute batxilergoko lehenengo mailako ikasleek. Ikasturte honetako laugarren ate irekiak izango dira; hirugarrena, martxoan egin zuten.

Bi ingenieritza gradu Hain zuzen, bi gradu eskaintzen dituzte bertan, ingenieritzak biak: Energiaren inge-

nieritza eta Ekoteknologia industriaren ingenieritza. Goi mailako bi ikasketak, programa dualaren bitartez egiteko aukera eskaintzen du Mondragon Unibertsitateak Orona Ideon, hau da, aldi berean ikasi eta horren inguruan lan egiteko aukera izaten dute ikasleek. Ikasketa horien nondik norakoak azaltzeaz gain, ikasleek euren testigantzak emango dituzte, garatzen dituzten proiektuak azalduko dituzte eta unibertsitateko instalakuntzak erakutsiko dizkiete bertaratuei. ||

HERNANI KONTZERTUA

Elkartruke kontzertua, bihar Biterin

Musika eskolako elkartruke kontzertua egingo da gaur 19:00etan, Biterin Kultur etxean, Altsasuko musika eta dantza eskolarekin batera. Bi eskolen arteko lankidetzaz izaten da. ||

ASTIGARRAGA ZILEGI ESKOLAK

Mekanika ikastaroa, gaur AEKn

Zilegi eskolen barruan mekanika ikastaroa antolatu da gaurko. AEKn bertan emango dira 19:00etan. Izenematea aurretik kultur etxean edo zilegieskola@aek.eus helbidean eman behar da. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

VI. URTEURRENA
Iñaki Lete Aduriz

*Maitasuna ez da inoiz itzaltzen.
Eta inoiz itzaltzen ez delako,
gogoan zaitugu.*

**LAURA, ANA ETA VICENTE, IÑAKI ETA ANA,
AMAIA, LAURA ETA NORA**

Hernani, 2019ko maiatzaren 29a

IRAGARKI MERKEAK

- Bikote gazteak** 2-3 gelako pisua alokatuko luke Hernani edo inguruan. Epe luzerako. Deitu: 688 774 068
- Hernaniko Etxeberri** auzoan harategia duen janari denda bat alokatzen edo saltzen da jubilazioa dela eta. Interesatuak Deitu: 689 290 923
- LANDANET** enpresak **KOMERTZIALAK** behar ditu. Baldintza ezin hobek: lan-kontratua, soldata finkoa, komisio altuak hilero eta formazioa enpresaren kontu. **Bidalai cv** info@landanet.net edo deitu 943 31 86 06
- Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)